



0-6 urteko ume elebidunen Gurasoentzako gida



**Munduko leku asko eta
askotan bezalaxe,
gurean ere hizkuntza bat
baino gehiago
bizi dira elkarren ondoan eta
horrek
aukera asko zabaltzen
dizkigu.**

1.- Onurarik izango dute seme-alabek elebidunak badira?

Bi hizkuntza jakin eta erabiltzeak aukera emango die kultura bat baino gehiagoren partaide izateko, adimena, sormena eta komunikazio sentiberatasuna garatzeko, nortasuna eta autoestimua indartzeko.



2.- Ume bat ekarri dugu. Zer egin hizkuntzen ikaskuntzari dagokionez?

Biok euskaraz badakizue onena da biok euskaraz egitea, euskara familia-hizkuntzatzat aukeratu eta umeak ondo garatzeko (eremu urriko hizkuntza bat dela kontuan hartuta), gerora, ez baitu arazorik izango gaztelania etxetik kanpo ikasteko. Batek bai baina besteak ez badaki, euskaraz dakienak hala egitea da egokiena; horrela, euskara ere lehen hizkuntza izango da eta hori ezingo dio beste inork eman.



3.- Zer hizkuntza erabili behar dugu euskaraz ez dakitenak gurekin daudenean?

Ume elebidunak modu egokian hazteko, oso kontuan hartu behar da honako abiaburua: hizkuntza bakoitzaren erabilera mugatzea. Familia-hizkuntza euskara bada, aholkurik onena da seme-alabei euskaraz egitea beti eta, beharrezkoa bada, gurasoek euskaraz ez dakitenei itzultzea. Jarrera horrek argi erakusten du familia-hizkuntza babestu eta garatu nahi dela eta ez dela ezkututzen, ezta hizkuntza nagusiaren menpean jartzen ere.



4.- Non lortu seme-alabentzako euskarazko liburu eta beste gai batzuei buruzko informazioa?

Euskarazko argitalpen ugari aurki daitezke merkatuan ume eta gaztetxoentzat. Dena den, euskarazko liburuak aurkitzeko erraztasuna kontuan hartuta ere, aukera bikaina da herri liburutegiak erabiltzea, doako zerbitzua delako eta guztiz baliagarria delako. Nola-nahi ere, jakizu Udalak urtero-urtero argitaratzen duela euskarazko produktuen katalogoa Gabon inguruan. Bertan informazio baliagarria aurkituko duzu euskarazko liburu, disko eta beste gai batzuei buruz, batez ere, argitaratu berri direnei buruz (www.katalogoa.eus).

5.- Gure seme-alabak euskaraz ikasten du. Zailtasunik izango du etorkizunean gaztelania ikasteko?

Euskara hutsean eskolatutako umeek oso erraz ikasten dute gaztelania etorkizunean. Batetik, hizkuntza batean ikasten diren edukiak bigarren hizkuntzara aldatu daitezkeelako erraz bai erraz; nahikoa da bigarren hizkuntzan nola esaten den jakitea, ez dira ezaupide guztiak berriro ikasi behar. Bestetik gaztelania gehiengoaren hizkuntza izanda, umeak gaztelaniaz aritzeko aukera eta erreferentzia ugari dituelako.



6.- Euskaraz jakin arren, gure artean gaztelaniaz aritzeko ohitura daukagu. Eraginik izan dezake horrek gure seme-alaben euskara gaitasunean?

Euskaraz dakiten gurasoek egiten ez badute, seme-alabek euskararekiko duten pertzepzioan eragin dezake: euskara umeentzako bakarrik dela pentsatzea, gizarteratzeko ez duela balio sinestea, bizitzeko ez baizik eta ikasteko bakarrik dela barneratzea... Horrek ez erabiltzea ekar dezake eta ez erabiltzeak gaitasunean jaistea.

7.- Euskara batua ala etxekoa, zein erabili behar da?

Etxeko euskara erabili konplexurik gabe, egokiagoa da etxean euskalkia erabiltzea euskara batua baino. Dakizuen euskara hori erabili, naturaltasunez, informaltasunez, etxeko giroak eskatzen duen modura.

Euskarazko eta gaztelaniazko bertsioak ez dira erabat berdinak, euskarazkoa euskaraz dakizuen gurasoon kezka eta beharriaz begira prestatu baitugu, eta gaztelaniazkoa, berriz, euskaraz ez dakitenen beharrei begira.

8.- Nire bikotekidearekin euskaraz hitz egitea asko kostatzen zait. Zer egin dezaket?

Beste ohitura batzuk aldatu dituzun bezala, hauek ere aldatzeko erabakia hartu; gauza txikiekin hasi eta behin eta berriz errepikatu. Horiek finkatu ahala, berri batzuei heldu. Prozesuaz hitz egin eta baloratu.

*“Guía para padres y profesores de niños bilingües”.
liburuan oinarrituta.
Udal Liburutegian eskura dezakezu.*